

Lana kolokan jartzeko alternatibak

Desazkundera eta bizitze ona III. topaketa

2013ko martxoak 19 eta 20
Karmelo Ikastola - Solokoetxe BHI
Solokoetxe kalea 17 **Bilbo**



Informazio eta izen-ematea: decrecimientoybuenvivir2013.wordpress.com



MUGARIK GABE
ONGI / BARRA
Desarrollo de uterko gaitia
www.mugarikgabe.org

EKOLOGISTAK
ONGI / BARRA
Desarrollo de uterko gaitia



Mugarik Gabeko Ingeniaritza
Ingeniería Sin Fronteras



reas
euskadi

DIRUZ LAGUNTZEN DU:



Mugarik Gabe, Ekologistak Martxan, Desazkundera, Paz con Dignidad, Bizilur, Euskadiko GGKEen Koordinakundera, ESK, Ingenierías Sin Fronteras País Vasco-Euskal Herriko Mugarik Gabeko Ingeniaritzak eta REAS Euskadi-k **Desazkundera eta bititze ona. III. Topaketa. Lana zalantzan jartzeko alternatibak-en parte hartzera gonbidatzen zaituzte.**

Esparru desbedinak jorratzen ditugun erakundeak gara eta egungo garapen ereduari alternatibak ematearen beharra daukagu; gure ustetan, Desazkundera eraldaketarako bideak irekitzen ditu.

Jardunaldietan Desazkundera eta Bititze Onaren paradigmak ikuspegi feministatik sakonduko ditugu, LANaren kontzeptua birkontzeptualizatuz eta aipaturiko kontzeptuak gauzatzeko era anitzetako batzuren inguruko esperientziak ezagutuko ditugu.

<http://decrecimientoybuenvivir2012.wordpress.com/>

EGITARAUA

Apirilak 19, ostirala.

18:00 – 18:30 **Jardunaldien aurkezpena.**

18:30 – 21:00 **PENTSAERAK ENDREDATZEN**

Alicia Garciak Florent Marcelles, Lorena Cabnal eta Matxalen Legarreta elkarrikituko ditu LANaren kontzeptuaren inguruan, Desazkundera, Bititze On eta Feminismoaren perspektiba desberdinetan endredatuz.

Amaieran ekitaldirik izango dugu.

Apirilak 20, larunbata.

DESAZKUNDEA MARTXAN

Alternatiba eta esperientzien aurkezpena

10:00 – 11:45 **GUREA BIRZEDARRITZEN**

– **Merkatu soziala;** Madrilgo Merkatu Sozialeko Toño Hernandez eta REAS Euskadiko Leire Alvarez de Eulate gurekin izango ditugu.

- **Tokiko moneta;** Sevillako Pumako Noemi Gonzalez eta Bilboko Bilbodiru esperientziak izango ditugu gurekin.

11:45 – 12:15 **ATSEDENALDIA**

12:15 – 14:00 **ZAINTZEN GARA**

- **Coomigrar.** Zainketa kooperatiba mistoko Leonora Castaño izango dugu gurekin (Kolonbia-Alacant-Valentzia).
- **Trabensol.** Zaharren bizikidetzarako zentro kooperatiboko Manolo Collado izango dugu gurekin.
- **Pandora Mirabilia.** Generoa, komunikazioa eta begirada feminista duten emakumeen lan kooperatiboko Andrea Garcia Gonzalez izango dugu lagun gurekin.

14:00 Ondo elikatu behar da! Kukutzako Jantokiren eskutik era askotariko tokiko jaki gozoak eta ekologikoak dastatuko ditugu.

15:30 – 17:15 **BRIDAK HELDUZ**

- **Terre de liens,** nezakal eta herritar mugimendu frantseseko Frédéric Latour (Akitania) izango dugu gurekin.
- **Marinaleda,** Sevilla herriko esperientzia ezagutuko dugu.

17:45 – 19:00 **...INGURUAN ARITUKO GARA ELKARRIZKETAN**

Elkarrizketarako eta eztabaidarako tamaina txikiko eta aldibereko espazioak (hautatu egin behar da).

- **Desazkundera eta sindikalismoa**aren inguruan arituko gara elkarrizketan EHNE Bizkaia, ESK eta ELAekin, eta Florent Marcellesi dinamizatzailea izango da.
- **Zaintzen inguruan** arituko gara elkarrizketan topaketetako hizlariekin eta Desazkundeko talde feminista izango da dinamizatzailea.
- **Ekonomiaren birzedarritzea**aren inguruan arituko gara elkarrizketan topaketetako hizlariekin eta REAS Euskadi dinamizatzailea izango da.
- **Autogestioa eta eredu produktibo**en inguruan arituko gara elkarrizketan topaketetako hizlariekin eta Bizilur izango da dinamizatzailea.
- **Kaleko akzio** desazkundetzailerako tailerra (Desazkundera dinamizatzaile).

19:45 **JAI GIROKO AMAIERA** (lekua: Hikaateneo)

Las kapitxosas “Clown” taldearen ikuskizunaz gozatu ahalko dugu eta amaiera bikaina emateko asmoz jakiak pikatzeko astia izango dugu bertan.

PENTSAERAK ENDREDATZEN

Lorena Cabnal



Emakume maia-xinka da, feminista komunitarioa, AMISMAXAJ Santa Maria Xalapan Jalapako Emakume Indigenen Erakundeko kosortzailea da; erakunde honek Aliantza Politikoaren Emakumeen Sektorean, Emakume Mesoamerikarrak Erresistentzian eta Emakumeen Munduko Martxan hartzen du parte. Egun, Guatemalako Asanblada Feminista eta Kontseilu Polilogoko kide aktiboa da; Guatemalako Xalapan Jalapako mendiko xinka herriko nortasunaren susperketan aritu egin da, hala nola Xinka

Xalapan Egitate Komunitarioaren lurralde Koordinakundearen osaketan, meatzeen aurkako fronte bezala.

Lorena Cabnalen argitalpen interesgarri batzuk:

- *“Bizitze Ona ikuspuntu feminista komunitariotik”*.
- *“Guztirako lankidetzak ez gaitu lagundu”*, *“Mugimendu sozialak eta lankidetzak: ezta-baidarako ideiak”* liburuko kapitulua.

Matxalen Legarreta Iza



EHUko doktorea soziologian; egun, EHUko Soziologia 2-n alboko irakaslea da. Etxeko lanak, zaintzak eta denboraren soziologia bere ikerketen esparruak dira. Ikuspuntu feminista batetik dihardu eta gai hauen inguruan hainbat argitalpen ditu, lan hauetatik honakoak azpimarratzen ditugu:

- *“Aldi baterako logikak eta genero desberdintasunak: etxe-esparruan emandako denbora. 2011”*.
- *“Denbora eta genero desberdintasunak: banaketa soziala eta denboraren politikak. 2010”*.

Florent Marcellesi



Ecopolitica zentroko koordinatzailea da, *Desazkunde* kolektibo eta *Ecologia politica* aldizkariako kidea. Ingeniari zibila, hirigile eta garapenerako lankidezan aditua da; aktibista eta ikertzailea. Besteak beste honakoak idatzi ditu:

- *“21 ordu. Lanaldi txikiago bat XXI. mendean aurrera egiteko”* (Icaria, 2012).
- *“Akabo hazkundera. Ondo bizi mundu solidario eta sostengarri batean”* (El Viejo Topo, 2013).

Entrebistatzailea: **Alicia García Santos**



Zuzenbidean lizentziatua, masterra Emakume eta Gizonen arteko berdintasunean eta masterra Kazetaritzan. Desazkundeko Feminismo taldeko kidea da; talde honek feminismoaren transbertsalizazioa desazkundean jorratzen du, bai diskurtso mailan bai praktikan. Maila profesionalean genero berdintasunezko aholkulari bezala aritzen da; arlo honetan, perspektiba interseksional batekin, emakumeei buruzko hamaika ikerketa egin ditu. Oso gustukoa du 96 urte dituen bere amonarekin hitz egitea, eta oro har, beste belaunaldiko emakumeekin esperientziak partekazea.

UREA BIRZEDARRITZEN

Merkatu soziala



Red de Economía Alternativa y Solidaria (REAS sareen sarea) merkatu soziala deitzen den hori suspertzen ari da: *“Ondasun eta zerbitzuen ekoizpen, banaketa eta kontsumorako sarea; irizpide etiko, demokratiko, ekologiko eta solidarioez funtzionatzen duen sarea. Sare honetan ekonomia sozial eta solidarioan aritzen diren enpresek eta erakundeek, hala nola kontsumitzaile indibidual eta kolekti-*

boek hartzen dute parte. Sarearen helburua bertan direnen beharren parte handi bat betetzea da, hala nola, ekonomia solidarioa ekonomia kapitalistatik urruntzea ahalik eta gehien”.

www.konsumoresponsable.coop/mercado-social

Puma moneta soziala



Puma Sevillako ipar hirigune historikoko moneta soziala da; era asanblearioan eta gardenki sortua, euroaren osagarri eta parte hartzen dutenen konfiantzaz eta konpromisoaz babestuta.

Soziala da komunitatetik bertatik sortzen delako, zeinak erabakitzen duen nola sortzen

duen bere balorea eta zeintzuk diren erabili beharreko bitartekoak funtsezko helburu komunitarioak lortzeko.

Euroaren balorea du: puma bat = euro bat. Local Exchange Trade System-LETS moneta osagarrien sisteman sustatzen da; herri mailako trukerako sistema da, puntuez trukatzeko, non kontu guztien guztizkoa zero den beti.

monedasocialpuma.wordpress.com

Bilbodiru moneta soziala



Bilbodiru ekimena 2011ko irailean sortu egin zen, *Desazkundera* kolektiboaren barruan. Indarrean den moneta-sistemari buruzko hausnarketak egin ostean ikusirik honek ekonomia mugarik gabe haztera behartzen duela planeta mugatu batean, herri mailako moneta bat sortzearen erronkari heldu genion paradoxa horri aurre egiteko eta ekonomiaren birzedearritzea suspertzeko.

www.bilbodiru.org

ZAINTZEN GARA

Coomigrar



Espainiako erresumako Alacant eta Valentzian, Kolonbiako Risaraldan bizi diren emakumeak osatzen dute COOMIGRAR kooperatiba. Kooperatiba honek emakumeen migrazio baldintzak duintzea du helburu, hala nola zaintza-lanetan egiten duten ekarpenaren aitortza; garapena, ongizatea, ekitatea eta justizia soziala suspertu nahi dituelarik.

COOMIGRARrek, Kolonbian, neskato, mutil, gazte, helduak, mendekotasunik duten pretsona eta abarrei zaintza-zerbitzu profesionalak eskaintzen dizkie, baita ere etxeko lanetan lagundu.

<http://coomigrar.com/>

Trabensol



Trabensol kooperatiba bat da, demokratikoa eta irabazi-asmorik gabekoa, pertsona helduen beharrei erantzun kolektibo egokia emateko. Lagun batzuk susperturiko taldea, solidarioak eta sozialki aktiboak; izaera kooperatibista duen talde honek harreman eta jardueretan bizia izango den bizitza baten alde

egiten du, fisikoki eta intelektualki sasoiari izateko. Hau dela-eta, elkarbizitza, kultura, aisialdi aktiboa, independentzia lagunekin bizitzeko era onuragarri bat suspertzen dute, zamarik gabeko eta doako harreman familiar hurbilen aldekoak direlarik.

www.trabensol.org

Pandora Mirabilia



PANDORA MIRABILIA GENERO Y COMUNICACION emakumez osaturiko kooperatiba bat da, partehartze sozialeko zerbitzuak ematen dituena, besteak beste diseinua, gauzatzea, partehartze sozialerako proiektuen kudeaketa eta ebaluaketa, hala nola tailerrak eta antzeko lankidetzak; garapena, prestakuntza-jardueren koordinazioa eta kudeaketa; material didaktikoen prestakuntza; ikerketa sozialak edota komunikazio sozialari buruzkoak dituzten ikerketa-jarduerak eta proiektuak; komunikaziorako teknologia berrien

erabilera sortzailea; eta erakunde-partehartzeak. Lanaren esku-hartze esparruak honakoak dira: prebentzioa, osasunaren susperketa, kooperazioa, komunikazioa, enplegurako prestakuntza, kooperatibismo eta ekonomia sozialaren suspertzea, eta abar.

www.pandoramirabilia.net

BRIDAK HARTUZ

Terre de Liens



Emakumeak eta gizonak biltzen dituen mugimendua da, lurrera heltze kolektibaren alde aritzen dira, lurren suntsiketa eta espekulazioari aurre eginaz, gertuko nekazal-proiektu ekologikoak laguntzeko loturak sortzen dituztelarik. Sentsibilizazioa eta hiritarren mobilizazioak dira erabiltzen dituzten ekiteko erak; hala nola aurrezkiak eta opariak jasotzea eta landetxeak erostea.

Terre de Liens Aquitaine 2010eko urrian sortu zen Dordogneko Eyssal landezearen aldeko hiritarren mobilizazio baten ondoren, eta Terre de Liens mugimenduaren elkarte territoriala bezala osatu zen.

Lurraldeko administrazioekin, nekazal-erakunde profesionalekin, jendarte zibilarekin eta mugimenduaren gainontzeko entitateekin dihardu.

www.terredeliens.org

Marinaleda



Marinaleda, borroka jornalari tradizio handiko Sevilako herri bat da; ondorioz, autogestioan eta okupazioaren bidez lurzorora heltzean sustaturiko eredu sozial eta politiko propio bat eraiki egin dute.

Marinaledako borroka langabeziaren aurka eta lurren alde zuzendu egin da beti, hala nola askatasunaren alde; askatasuna berdintasunik gabe gezur boro-bila delako eta agintarien barre-argara.

Sindikalki, 1977an sorturiko Sindicato de Obreros del Campoko kideak dira. Sindikatu hau klase-sindikatu

da eta nekazal-erreforma lortu nahi du Andaluzian.

www.marinaleda.com

BESTE ESPERIENTZIA INTERESGARRI BATZUK

GUREA BIRZEDARRITZEN

Esnetik Kooperatiba: www.esnetik.com

Nekasarea: www.ehnebizkaia.org/index.php/es/nekasarea

Sostre Civic: www.sostrecivic.org

Bizigai: www.bizigai.org

L'Eusko: www.euskalmoneta.org

Agroasanbladas (Orduña, Arratia)

ZAINTZEN GARA

Clínica Ambiental: <http://solo-ida.blogspot.com.es/2010/09/la-clinica-ambiental.html>

Acción ecológica: www.accionecologica.org

Asociación Jubilares: <http://jubilares.wordpress.com/tag/cooperativa/>

Kortiñe Escuela Libre: www.izanleike.com/post/kortine-escuela-libre

Educación sin escuela

BRIDAK HELDUZ

Cooperativa Integral Catalana: <http://cooperativa.cat/>

Fabsinpat: www.ceramicafasinpat.com

Cooperativa de Mujeres Artesanas Jolom Mayaetik: www.kinalantsetik.com

Muxutruk: www.musutruk.com

Grupo La Veloz: www.grupolaveloz.com

Xochilt Acalt, Nicaragua: xochiltacaltmalpaisillo.com

Café “Las Diosas”: <http://www.fundacionentremujeres.org>

Cala-fou: www.calafou.org

Amayuelas: <http://amayuelas.es/>

Proyecto Ekoizpen Orduña: http://www.premioconama.org/premiosII/premios/proyectos_popup.php?id=56

